

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

#### **Behin-behineko onarpena ematea nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatu eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza indargabetzeari**

Udalbatzak, 2016ko irailaren 7ko ohiko bilkuran, gaia eztabaidatu ondoren eta aho batez, behin behineko onarpena eman zion ordenantza hau indargabetzeari:

– Arraia-Maeztuko udalerriko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak sustatu eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza.

Hasierako onarpena emateko erabaki hori jendaurrean jarriko da hogeita hamar eguneko epean, ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratuta, epe horretan egoki jotzen diren erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko. Erreklamazio eta iradokizun horiek udalbatzak ebatziko ditu. Aipatutako epe horretan iradokizunik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko onarpen hau behin betiko onarpen bihurtuko da, udalbatzaren berariazko beste erabakiren beharrik gabe.

Maeztu, 2016ko irailaren 13a

*Alkate-lehendakaria*

**ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**